

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN
EMAKUMEEN ARRETARAKO GIPUZKOA PLANA

2008ko iraila



Aurkibidea

SARRERA

1. Prebentzioa eta sentsibilizazioa
2. Baliabideak eta programak
3. Baliabide eta programetan sartzea
4. Funtzionamenduaren eskema



SARRERA

Plan honen helburua da garatzea zein izango den funtzionamendua Gipuzkoan, genero indarkeria dela-eta sortzen diren beharrian egoerei erantzuteko.

Genero indarkeriaren biktimen arreta integraleko programak jarduera marko bat ezarri nahi du, hartara egungo baliabideak indartzeko eta hobetzeko eta, orobat, berriak sortzeko. Horrela, indarkeriaren fenomenoaren inguruan ari diren gizarte agente guztien koordinazioa sustatuko da.

Programaren printzipio dira prebentzioa eta berehala laguntza.

Prozesua egokia izateko, sektore arteko batzorde bat behar da, sektore bakoitzeko arduradunekin.

Plan honi Gipuzkoa proiektua esan zaio, eta zenbaitetan proiektuaren zenbait alderdi azaldu ditugu.

Dokumentu honetan, Gipuzkoa proiektuaren informazio osoa eman nahi dugu: funtzionamendurako aurreikusita dagoen diseinua eta programa honen baliabideen deskripzioa eta aurreikuspena.

Gipuzkoa proiektua esparru juridiko legalaren baitan garatzen da. eta esparru horren aurrekariak hauek dira:

- ✓ Europako Batasunaren gomendioak, emakumea indarkeriaz babesteari buruzkoak, 2002ko apirilaren 30ean onartuak.
- ✓ Erakundeen arteko erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeei eman beharreko arretari buruzkoa, 2001eko urriaren 18koa.
- ✓ Arartekoaren ezohiko txostena, emakumeen aurkako indarkeriari eman beharreko erantzun instituzionalari buruzkoa, 2003ko abendukoa.

Halaber, honako legeria hau ere aintzat hartzen da:

- **15/1999 Lege Organikoa, 1999ko abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.**



- **Erakundeen arteko erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeei eman beharreko arretari buruzkoa, 2001eko urriaren 18koa.**
- **27/2003 Legea, 2003ko uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena.**
- **1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa, bereziki II. tituluko zenbait atal, indarkeriaren biktima den emakumeari, lan eskubideei, Gizarte Segurantzari eta eskubide ekonomikoei buruzkoak.**
- **4/2005 Legea, 2005eko otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, zeinak 57. artikuluan harrera etxebizitzak eta larrialdiko zerbitzuak arautzen baititu.**
- **205/2005 Errege Dekretua, 2005eko otsailaren 25a, behar ekonomiko bereziak eta enplegua aurkitzeko zailtasunak dituzten langabetuak gizarteratzeko errenta aktiboaren programa arautzen duena 2005 urterako.**
- **3/2007 LEGE ORGANIKOA, maiatzaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun efektiboari buruzkoa.**
- **2007ko ekainaren 12ko 44/07 Foru Dekretua, 2004ko maiatzaren 18ko 45/04 Foru Dekretuaren tratu txarrak eta/edo sexu askatasunaren kontrako ustezko delituak jasan dituztenentzako laguntza psikologikoko programa arautzen duena, aldatzen duena.**
- **148/2007 Dekretua, 2007ko irailaren 11koa, etxeko eremuan tratu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena. Dekretu honek harrera baliabideak eta intentsitate handiko zentroak sailkatzen ditu (Eusko Jaurlaritza), eta erakunde bakoitzaren eskumenak ezartzen ditu.**
- **2007ko azaroaren 29ko AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru laguntza esleitzea eta ordaintzea (1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa).**

Emakumeen aurkako indarkeriatzat jotzen da: “**emakumeen aurkako indarkeria generoan oinarritutakoa da eta horren ondorioz min fisiko, sexual edo psikologikoa sortzen da edo sor daiteke; hor sartuta daude mehatxuak, hertsadura eta bidegabeki askatasunik gabe uztea; eta hori guztia bizitza publikoan zein bizitza pribatuan**”.



1. Prebentzioa eta sentsibilizazioa

Planaren lehen helburua izango da genero indarkeria alderdi guztietatik aztertzea, bereziki sexu indarkeria bezain garrantzitsua den arazo baten aurrean gizarteak erakusten duen sentsibilizazioari dagokionez.

Horretarako, ekimen hauek oso garrantzitsua iruditzen zaizkigu:

- Sexu jazarpen motei buruzko ikerketak jaso eta aztertzea, sexu jazarpenak noiz gertatu ohi diren, biktimek jasan behar dituzten ondorioak...
- Printzipioen adierazpen bat egitea, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren menpeko enpresek sexu jazarpena prebenitzeko eta desagerrarazteko duten konpromisoa agerian jartzeko, zero tolerantzia filosofiarekin bat etorritik.
- Erakundeen arteko hitzarmenak sustatzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sentsibilizazio kanpainak abian jartzeko.

Gizarte Politikako Departamentua eta Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua konpromisoa hartzen dute ekimen hauek aurrera ateratzeko, betiere gaiarekin konpromisoa duten elkarrekin eta lurraldeko gainerako erakundeekin batera.



2. Baliabideak eta programak

Gipuzkoa proiektuak bi helburu nagusi ditu:

- ▣ Biktimen eskura arreta zerbitzu integrala jartzea; bertan, harreran hasi eta gizarteratze normalizatuan amaitzen den prozesua hartzen da.
- ▣ Indarkeria jasan duten emakumeen harrerarako foru baliabideak arautzea, legezko marko juridikoaren arabera.

Helburu horiek lortzearren, baliabide hauek jarriko dira genero indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalen esku:

- 2.1. Berehalako harrera zerbitzua, Gizarte Larrialdien Foru Zerbitzuen eskutik.
- 2.2. Laguntza psikologikoko zerbitzua.
- 2.3. Laguntza juridikoko zerbitzua
- 2.4. Harrera zentroa, berehalakoa eta egonaldi ertainerako edo luzerako.
- 2.5. Zubi-etxebizitzak (autonomiakoak/ itzultzeko), eskualde nahiz udal mailakoak.

1.1. **Berehalako harrera zerbitzua, Gizarte Larrialdien Foru Zerbitzuen eskutik.**

Esku hartzeko eskaera jaso eta lehenengo asistentzia ematea:

- ◇ Eraso baten lekuko partikularrek adierazita
- ◇ Ertzaintzak edo udaltzainek adierazita, biktima batek esku hartzea behar duenean



- ◇ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek adierazita
- ◇ Beste batzuek adierazita

Larrialdiko harrera eginda, programa egokira bideratzen da, biktimaren egoeraren arabera:

1.2. Laguntza psikologikoko zerbitzua

- ❖ Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Psikologoaren Elkargoaren arteko hitzarmena (87 profesional kreditatu), tratu txarrak jasotzen dituenari arreta psikologikoa emateko.

Tratamendu psikologikoa edo terapia pertsonala 21 saio bakarkakoetan ematen da, edo gehiagotan hala behar bada¹.

1.3. Laguntza juridikoko zerbitzua

Bi programa:

- ❖ Eusko Jaurlaritzaren eta Legelarien Euskal Kontseiluaren arteko hitzarmena berehala arreta juridikoa emateko indarkeriaren biktima diren emakumeei, dela etxeko indarkeriaren biktima izan, dela sexu erasoaren biktima izan, Euskal Autonomia Erkidegoan.
- ❖ GFaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren arteko hitzarmena, salaketa jarri aurreko laguntza juridikoa emateko.

1.4. Berehalako harrera zerbitzua, egonaldi labur-ertainetarako

Berehalako harrera zerbitzuak zentro bat izango du, eta zentro hori larrialdiko harrera baliabide gisa erabiliko da, egonaldi labur edota ertain/luzeko gisa. Zentroa 24 ordu eta 365 egun izango da zabalik urtean.

¹ Oharra: arreta psikologikoko zerbitzu honetara, erasotzaileak sar daitezke, hala eskatzen badute edo fiskaltzak bideratzen baditu.



Zentroan, berehalako arreta egingo da: lehenengo balorazio/orientazioa egin eta pertsonari baliabiderik egokienak eskaini.

- ✓ Etxean tratu txarrak jasatearen ondorioz beren etxebizitza edo ohiko bizilekua utzi behar izan duten emakumeei aldi baterako ostatua emango zaie, bai eta haien mendekoei ere (seme-alabak, adingabeak ala ez, edo mendeko helduak).
- ✓ Pertsona horiei, ingurune seguruan, beren egoera pertsonal eta familiarrean beharrezkotzat eta desiragarritzat jotzen dituzten aldaketei aurre egin eta horiek ahalbidetuko dituzten erabakiak hartu ahal izateko denbora eta babes egokia izateko aukera eskainiko zaie.
- ✓ Beren egoerari egoki aurre egiteko autonomia pertsonala sustatuko da, beharrezko aholkularitza, informazioa eta laguntza eskainiz eta babes baliabide egokienak eskuratzen lagunduz.
- ✓ Laguntza eta gizarte babesa emango zaie etengabe, beharrei egokituta.
- ✓ Pertsonaren segurtasun fisikoa eta psikikoa bermatuko da.
- ✓ Laguntza ekonomikoa emango zaie.
- ✓ Etxeko arreta eta esku-hartze psikologiko, terapeutiko eta sozioedukatiboa emango da, genero indarkeriaren eraginpean egon diren seme-alabekin.
- ✓ Oinarrizko gizarte zerbitzuekin batera, bakarkako edo familiako plana eta esku-hartzea eskainiko zaie, eta, komeni bada, esku hartzea proposatuko da helburu hauek lortzearen:
 - ❖ Informazioa, laguntza
 - ❖ Zentroan edo etxebizitzan harrera ematea
 - ❖ Laguntza psikologikoa
 - ❖ Hezkuntza laguntza ematea familia unitateari
 - ❖ Gizarte laguntza
 - ❖ Aholkularitza juridikoa
 - ❖ Trebakuntza prebentiboa
 - ❖ Trebetasunak lortzea gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko



- ❖ Lana lortzeko formazioa, eta lana bilatzea.
- ❖ Etxean jarraipena egitea.
- ❖ Derrigorrezko eskolatzearen adinean dauden pertsonen berehalako eskolatzea.
- ❖ Jarraipena etxean, udal eskumeneko harrera-etxebizitzetan edo autonomia etxebizitzetan.

1.5. Zubi-etxebizitzak (autonomiakoak/ itzultzeko), eskualde nahiz udal mailakoak.

Egonaldi motz-ertaineko tratamendu eta jarraipen fasea gaindituta, edo udal etxebizitzako egonaldia baloratuz gero, lekualdatzearen faseari ekingo zaio, non jarraipena eta laguntza emango baitzaio egunerokoan modu aktiboan has dadin, betiere kontuan izanda biktimaren eta ingurukoen beharrak zein diren.



3. Baliabide eta programetan sartzea

Aurreko apartatuan esan bezala, programa honetara sartzea beste zerbitzu publiko edo pribaturen bidez egingo da.

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- Osasun zerbitzuak
- Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua
- Polizia
- Gizarte Larrialdietako eta Emakumeen Atalak egindako eskaera.


Egonaldia beharrezkoa bada, bertan adinez nagusi diren emakumeak edo babes behar duten adingabe emantzipatuak egongo dira, egoera larrian daudenak, babes eta etxe beharrez. Halaber, emakume horien babesean dauden pertsonak ere egongo dira (seme-alabak edo emakumearen menpeko adineko pertsonak).



4. Funtzionamenduaren eskema



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA



BALIABIDEEN KOKAPENA

